



ICLI 02 koadernoak:

# Uraren azpiegitura eta emakume ur-administratzailearen sendotzea

## Sarrera

Kongoko Errepublika Demokratikoko Idjwi uharteko biztanleak bizi ziren muturreko urrakortasun-egoerak<sup>1</sup> Ingeniería para la Cooperación – Lankidetzarako Ingeniaritza (IC-LI) GGKE, Euskal Herriko Ingeniari Industrialen Elkargoekin lotura duena, garapena sustatzeko elementu nagusitzat ura hartzen duen garapenerako lankidetzarako proiektu bat martxan jartzera bultzatu zuen, Mariaren Lagundiarekin batera (uhartean 15 urtetik gora lanean daramatzan erlijio-ordena).

Lehenik eta behin, uraren inguruan dagoen arazoa, arazo horren kausak eta eragiten zuten faktoreak **aztertu** ziren, bai eta proiektu bat aurrera eramateko zituzten ahalmenak, giza baliabideak eta baliabide materialak eta teknikoak ere.



Uharteko erliebe menditsua kostaraino hedatzen da

Zonaren gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-testuinguruaren ezaugarrien ezagutza xehatua gakoa zen uraren arazoaren eta zonako baldintzen neurriko soluzio teknikoa planteatzeko. Gero, **proiektua zehazteko**, funtsezkoak izan ziren bizilaguntaldeekin egindako bilerak eta tailerrak. Hain zuzen ere, bilera espezifikoak egin ziren komunitateetako emakumeekin haien iritziak eta proposamenak jasotzeko. Haien ziren kaltetuenak ur-eskasiagatik, urez hornitzeko arazoengatik, biztanleen benetako premiengatik eta ur kutsatua kontsumitzeko arriskuagatik.

Proiektuaren **alderdi teknikoaren** diseinua Kongoko profesionalak egin zuten Euskal Herriko IC-LI erakundeko hara joandako langileen laguntzarekin. Gainera, lurraldean ohikoa den bezala, proiektu bat gauzatzeko edo edozein azpiegitura eraikitzeko, tokiko agintaritzaren gorenaren eta esku hartuko den herrixketako buruzagien baimena behar da. Ildo horretan, agintariak proiektuari buruzko informazioa jaso zuten eta beren iradokizunak egin zituzten.

Horrekin guztiarekin, 2003an hasiera eman zitzaion bina urteko lau fasetan zatitutako esku-hartzeari, Idjwi uharteko biztanleen osasun- eta gizarte-baldintzak hobetzeko helburuarekin, **uraren azpiegitura hobetuta eta uraren administrari gisa emakumeak duen zeregina indartuta**. Esku-hartzea honako lan-estrategia hauetan oinarritu da:

## 1. Iturburu naturaletatik ura hartzeko azpiegitura eraikitzea


Iturburuetatik ura hartzeko azpiegitura lurraldearen hegoaldeko hainbat herrixka, osasun-zentro eta eskola iturri komunitarioen bidez urez hornitzeko erabili da.

Idjwi uhartearen erliebe menditsuak eta iturburuak mendien goialdean egoteak lagundu egiten du sistemak ondo funtzionatzen. Ura grabitatearen eraginez mugitzen da, mendiaren malda baliatuz, beste energia-motarik erabili gabe. Gainera, kutsatu gabeko

<sup>1</sup> Herritarrek arrisku-egoera bati aurre egiteko aukerak eta baliabideak murrizten dituzten aurkako baldintzak

ura da, mendian eroritako ura delako, lurrak berak iragazi eta iturburuan ateratzen dena.

Sistema osoak honako elementu hauek ditu: ura biltzeko kutxatila, suspentsioko partikulak ezabatzeko dekantagailua, emaria erregulatzeko biltegia eta elementu horiek lotzeko eta iturri publikoak hornitzeko hodiak. Sistema hori eraikitzeko mendien goialdeko hezetasun-puntuak kokatu ziren, inguruko landaredia ezabatu eta ingurunea garbitu zen iturburuan ura ateratzen zen tokia aurkitu arte. Leku horretan egin zen ura biltzeko kutxatila.



Erabili ziren eraikuntza-materialak, gehien bat zementua, harea, harriak eta PVCzko hodiak Bukavu hiriko establezimenduetan erosi ziren. Taldeka antolatuta, bizilagunek egin zituzten eraikuntza-lanak proiektuaren tokiko talde teknikoaren (iturginak eta igeltseroak) koordinaziopean eta gidaritzapean, zonako eraikuntza-tekniken arabera. Ume, emakume eta gizonezkoek hartu zuten parte obran: materialak garraiatzen, zangak edo hodiak trazatua egiten edo dekantagailuak, kutxatila eta biltegiak eraikitzen. Teknikariek eraikuntzari buruz emandako prestakuntza praktikoari esker, bizilagunak lan-mota horiek egiteko gai dira orain, eta etorkizunean uhartean obrak egin ahal izango dituen eraikuntza-kooperatiba bat eratu dute.



Dekantagailua eraikuntza-fasean

7 urtez lanean aritu ondoren, 15 iturburutan ura hartzea lortu dute, iturburu horietan dekantagailuak jarri dituzte eta 117 kilometro hodi jarri dituzte, bai eta 950 m<sup>3</sup> biltegitratzeko aukera ematen duten 13 biltegi ere. Banaketa-lerroaren amaieran 194 iturri publiko jarri dira herrixketatik hurbil, 110.000 lagunentzako ur-hornidurarako.

Ur edangarria eskuratzeko baldintzak hobetzearen ondorio soziala handia izan da. Urarekin lotura duten gaixotasunak izugarri murriztu dira. Koleraren kasuan, proiektua gauzatu baino lehen, batez beste, 12 heriotza eragiten zituen urtean, eta orain 1 edo 2 lagun eragiten die urtean. Emakumeen kasuan, osasun-arloko hobekuntzatik haratago doaz ondorioak: orain ez dute egunero ibilaldi luzerik egin behar ura hartzeko, eta beste jarduerak batzuetan erabil dezakete denbora hori, esaterako, prestakuntzan.



Eraikuntza-materialak txalupan garraiatzen Bukavu hiritik

## 2. Emakumeen prestakuntza

Orain ur-iturriak dauden lekuetatik hurbil, zurezko 8 ikasgela eraiki dira, xafla metalikozko sabaiarekin. Ikasgela horietan, emakumeentzako prestakuntza-ikastaroak eman dituzte interesatzen zaizkien gaien buruz:

- Nutrizioa
- Higiene pertsonaleko ohiturak, osasuna eta urari lotutako gaixotasunak
- Ingurumenaren eta iturburuen zaintza
- Giza eskubideak eta beren bizitzetan duten eragina
- Nekazaritza, merkataritza eta, oro har, ekonomia-jarduera sustatzen duten elkarteak sortzea



Ezagutza berriek beren bizitza eta euren familien bizitza hobetzen laguntzen diete emakumeei

Emakume asko beren familiak behartu zituzten umetan eskola-ikasketak uztera eta ikastaro horiek prestakuntzarako aukera paregabea dira emakume horientzat. Erabilitako irakaskuntza-metodoak dinamikoak eta hezkuntza-mailara egokitutakoak izan dira, edukiak emakume guztiak ulertzeko modukoak izan daitezten. Emakumeek, ikastaro horietan, jendea higiene-ohiturek duten garrantziari buruz sensibilizatzeko materialak ere egin dituzte (kartelak eta marrazkiak). Otorduen aurretik eskuak urarekin eta xaboiarekin garbitzeak gaixotasun arruntak harrapatzea saihesten du, besteak beste, beherakoa, batik bat umeen artean heriotza asko eragiten dituena.

Prestakuntzak, bestalde, beren buruarekiko segurtasuna eta herrixketako ura kudeatzen duten tokiko erakundeen buru izateko dituzten gaitasunekiko konfiantza eman die emakumeei. Proiektuak martxan daramatzen 7 urteetan, 4.000 emakume baino gehiagok hartu dituzte prestakuntza-ikastaroak.

Prestakuntza-ikasgelak komunitateko eguneroko kontuei buruz hitz egiteko leku gisa ere erabiltzen dituzte emakumeek, opilak egiteko manioka ehotzen duten bitartean. Ez da ahaztu behar ur-sistema eraiki aurretik iturburuak zirela emakumeen elkarguneak, bai eta etxeko lanak utzi eta aisiarako eta atsedenerako tartea ere, bidoiak urez betetzeko txandaren zain zeuden bitartean.

## 3. Ura kudeatzeko tokiko erakundeak indartzea

Eraikitako ur-azpiegiturak ondo funtzionatuko duela bermatzeko, gakoa izan da haren zaintzaz eta mantentzeaz arduratuko diren pertsona adituak eta antolatuak alboan izatea. Hala, bi batzorde-mota eratu dira:

- **Hornidura Batzordeak**, azpiegituraren mantentze orokorraz arduratzen direnak, hau da, elementu guztiak behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzeko, matxurak hauteman eta konpontzeko, dekantagailuak, hodiak, kutxatilik eta biltegiak garbitzeko eta, kutsa ez daitezten, iturburuen egoera berrikusteko aldizkako bisitak egiten dituztenak.
- **Iturrien Batzordeak**, iturri publiko bakoitzaren funtzionamenduaren eta uraren banaketa zuzenaren erantzuleak dira. Sistema bakoitzak hainbat iturri dituenaz, Iturrien Batzordeak dagokien Hornidura Batzordearekin koordinatu behar dira.



Iturri publiko bakoitzak hainbat familia hornitzen ditu



**Kuotak biltzeko sistema** bat ere ezarri da. Horri esker, matxura-konponketak ordaindu ahal izango dira. Egia esan, eraikitako azpiegituraren iraunkortasuna bermatzen duen neurri hori bizilagunek baztertu zuten hasieratik, ez zitzaielako beharrezkoa iruditzen. Baina ur-sistema eraiki eta urte batzuk geroago matxurak izan ziren hainbat iturri eta hoditan. Batzordeek ez zituzten konpondu eta bizilagunek beste iturri batera joan behar izaten zuten. Proiektua gauzatu aurretik egoera hori jasan zuten arren, orain ezagutzen zituzten ur osasungarria eskura izatearen onurak, horrek eguneroko bizimoduan eragiten zituen onurak, eta askoz gehiago balioesten zuten zerbitzua. Azkenik, aldiro-aldiro diru-kopuru txiki bat jartzea erabaki zuten bizilagunek, oraingoan ia aho batez, mantentze-kostuei aurre egiteko eta epe luzera hornidura bermatzeko. Hornidura Batzordea da orain funts horiek administratzeko arduraduna.

Bizilagunek aukeratutako hiru lagunek osatzen dute batzorde bakoitza. Pertsona horiek emakumeak izan behar dute. Izan ere, komunitateek uste dute emakumeek hobeto ezagutzen dituztela uraren hornidurarekin eta erabilerarekin zerikusia duten kontuak. Neurri hori genero-berdintasunerako aurrerapausoa da Idjwiko komunitateetan. **Pixkanaka-pixkanaka, emakumeak erantzukizun publikoak hartzen hasi dira**, bai eta komunitateko kontuetan erabakiak hartzeko orduan modu aktiboan parte hartzen ere, lehen gizonezkoetara mugatuta zegoen eskumenean.



Batzordeetako emakumeak gorabeherei buruz hitz egiteko eta mantentze-lanak koordinatzeko biltzen dira

Proiektuaren ondorioz, herrixketako uraren kudeaketaren erantzukizun nagusia batzorde berrien gain zegoen berriro. Tokiko agintariak onartu egin dituzte batzordeak. Ur-azpiegituraren obrak amaitu ondoren, herrixkako buruzagiek hornidura-sistema berria “onartzeko” eta eratutako batzorde berriak jendaurrean aurkezteko zeremonia sinboliko bat egin zen.

**Egilea:** Ingeniería para la Cooperación – Lankidetzarako Ingeniaritza (ICLI) eta Asociación Zabalketa de Cooperación y Desarrollo

**Argazkiak:** ICLI | **Kofinantziazioa:** Bizkaiko Foru Aldundia | **Diseinua eta maketazioa:** Seteseoito | **Inprimaketa:** Imprenta Garcinuño | **Lege Gordailua:** BI-371-2016

DHAS Bizkaiko taldearen, ICLIn, eta Zabalketaren web-orrietan ere eskuragarri dago, gaztelaniaz nahiz euskaraz

[www.forobizkaiaadhas.org](http://www.forobizkaiaadhas.org) / [www.icli.info](http://www.icli.info) / [www.zabalketa.org](http://www.zabalketa.org)